

FUNTSEZKO BALIABIDEAK




Funtsezko baliabideen bitartez, balorezko proposamena garatu, bezeroengana iritsi, harremana mantendu eta diru sarrerak lortu ahal izango ditu gure enpresak.

Baliabide fisikoei dagokienez, materialak, kontzesionarioa, tailerra, ordenagailua, telefonoa izango dira. Materialak beharko ditugu autoak eraikitzeko, eta beste enprekin egingo ditugun elkarten bidez lortuko ditugu, Michelin, Sunpower eta Starchem, adibidez. Kontzesionarioa eta tailerra beharko ditugu autoak eraiki, saldu eta konpontzeko. Beste aldetik, telefonoak eta ordenagailuak beharko ditugu webgunea kudeatzeko eta bezeroekin harremanetan jartzeko.

Gure baliabide intelektualak eta giza baliabideak kontratatuko ditugun ingeniarien abilezia eta jakintzan oinarrituko dira. Baita gure ekintzailetasunean ere, eta talde lanerako abilezia, Guzmanen lidergoa eta konpromezua, Ibairen motibazioa eta planifikazioa, Oierren komunikaziorako abilezia eta adimen emozionala eta Garikoitzen autokonfiantza eta flexibilitatea aportatuko ditugu. Hau da, gure trebetasun eta abileziak izango dira, eta baita gure langile taldearena ere.

Gure finantza baliabideei erreparatuz, enpresan inbertitutako dirua izango da, baita irabazi-iturrien atalean zehaztutako bankuari eskatutako mailegua ere. Bestalde, enpresako finantzak administratuko ditugu enpresak bai orainaldian eta bai etorkizunean arrakasta izango duela bermatzeko. Ondorioz, gure kapitala administratzeko ahalmen handia izango dugu banketxeari mailegua bueltatu ahal izango diogulako eta etorkizunean tartea izango dugulako gure enpresa bide hoberenera gidatzeko.

Gure organigrama hurrengo hau da. Enpresaren funtzionamendu egokirako eta gure balio proposamena behar bezala betetzeko bakoitzaren gaitasunak abiapuntutzat hartuta antolatuko dugu enpresa. Denak izango gara zuzendariak, baina bakoitzak lan desberdin bat izango du enpresaren barruan. Ibai marketing burua izango da, sormen handia duelako, metodo desberdin eta originalak baliatuko ditu gure enpresaren ezagutza hedatzeko. Garikoitz hornitzaile burua da, jendearekin komunikatzeko ahalmen handia duelako, hortaz, enprekin kolaboratu eta harremanetan jarriko da. Guzman berriz, finantza burua da, merkatua oso ongi ezagutzen duelako eta gure enpresak ahalik eta etekin handien lortzea izango du helburu bezala. Azkenik Oier, bezeroen harremanen burua da, bezeroen komunikazioa eta erosotasunean begiratzen du, haiekin komunikazioa egokia eta ahalik eta errazena izatea du helburu.



Ondorioz, giza baliabide eta baliabide intelektualei dagokionez talde orekatua garela uste dugu, denek dugulako postu bat eta bete beharreko lan bat taldean. Lanaren kudeaketa egoki honek balio proposamena aurrera eramaten lagundu dezake bakoitza bere arloan konzentratu behar delako, egin beharrekoak hobeto ezagutuz eta ezbeharrak konpontzeko erreztasun handiagoa edukiz.